



EBBren Prentsa Bulegoa
EUZKADIko
PRENTSA IDAZKOLA



El único discurso válido será el pronunciado por el orador en el acto.

Balioa izango duen diskurtso bakarra izango da hizlariak ekitaldian bertan eskainiko dueña.

Joseba Díez Antxustegi

EGI Eguna. Guardia. 2023-4-1

Antolatzaileei eskertu nahi dizuet luzatu didazuen gonbidapena gaur hemen hitz egiteko. Badakizue ilusio handia egiten didala, izan ere, gaurko EGI egun hau oso berezia da neretzat. Lehen mitina EGI Egun batean eman nuen: orain dela 10 urtekoan, 2013an, Lizarran. Eta hamar urte geroago, oraindik hemendik gabiltza... Baina gutxi geratzen zaigu... Aurtengoa nire azken EGI Eguna da, jubilaria helduko zait laster... hori bai! eztabaida, hausnarketa, kanpaldi eta trikipoteo askoren ondoren Eskerrik asko emandako aukeragatik eta urte horietan guztietan partekatutako momentuengatik. Berezia, bai. Baina oso tristea ere. Orain dela oso gutxi lagun batek utzi gaituelako. Denbora luzez gaurkoa bezalako ekitaldiak antolatzen aritu izan den laguna. EGiren alde, Alderdiaren alde, Euskadiren alde lan asko egin duena. Gaur ere, dagoen lekuan dagoela, gure ondoan dagoen lagun abertzalea eta zintzoa. Gogoan zaitugu, Iñaki. Ez zaitugu ahaztuko. Baina EGI eguna beti da egun garrantzitsua. Egutegian gorritz markatuta dagoen eguna. Zazpi herrialdeetako gazteak batzen dituen. EGIkideak batzen dituen.

EGIKIDEAK.

Zenbat aldiz galdetu dizuete zuen herrietan, zuen lagun taldeetan, esaten diezuenean EGiko ekitaldi batera zatoztela, "AIZU, ZER DA EGI?"
Niri gutxienez, denbora luze honetan, behin baino gehiagotan.
Erantzuna, beti argia: EUZKO ALDERDI JELTZALEaren gazteak gara.
Jatorri, ikasketa, ogibide eta pentsamolde askotarikoak.
Baina helburu eta sentipen bakarra daukagunak.
Abertzaleak gara. Abertzaleak eta gazteak.
Eta gure herria zein den argi daukagu.
Horrek definitzen gaitu, eta horrek bereizten gaitu beste gazte erakunde batzuegandik.
Zer garen badakigu.
Gure nortasuna argi daukagu.
Eta gure herria maite dugu.
Eta behin hori argi utzita, aberrigintzan ari gara.
Lanean.
Lana egitea oso garrantzitsua delako, bai.
Baina horrek ez du ezertarako balio, ez dakizunean zeren alde egiten duzun lan.
Ta guk badakigu. Guk argi daukagu.
Euskadiren alde, Euskadiko herrien alde eta Euskadiko bizilagunen alde egiten dugu lan.
Beste batzuek guk baino zarata gehiago egiten dute, ziur.
Protestak aurrera eramateko guk baino eskarmentu handiagoa dute, zalantzarik gabe.



Pankartak guk baino hobeto egiten dituzte, beharbada bai.
Baina zertarako egiten dute hori guztia?
Zer lortzen dute horrekin?

EZER ERE EZ.

Ikusi dugu ez dutela ezer lortu 40 urtetan eta argi dugu hurrengo 40 urteetan ere ez dutela ezer lortuko herri honen alde.

Eta guk? Zer egiten dugu guk?

Ba egiten dugunaren adibidea hemen bertan dago, zuen artean.

Datorren hilabetean, maiatzaren 28an, hauteskundeak ditugu.

Eta zuetako asko udal zerrendetan agertuko zarete, ziur.

Zinegotziak izango zarete zuen herrietan.

Batzarkideren bat ere egongo da.

Programak lantzen ibili zarete, proposamenak egiten zuen herriak hobetzeko.

Zuen herriaren eta herrikideen alde jarriko duzue daukazuen gauzarik baliogarriena:

Zuen denbora eta konpromisoa.

Konpromisoa, ardura erakutsi duzuelako.

Konpromisoa, zuen inguruan gertatzen denak kezkatzen zaituztelako.

Eta hori da, azken finean, aberria maitatzea.

Zuek egiten duzuen da aberria maitatzea.

Gaur, Araban gaude, Arabako Errioxan.

Eta aukera izan duzue ikusteko...

Paisaia, ederra.

Ardoa, ezinobea.

Jendea, atsegina eta langilea.

Eta eskualdea, EAJ ereduaren adibide paregabea.

Mugatik gertu dagoen eskualdea da.

Baten batek pentsatu zazekeen, abertzaletasuna zabaltzeko ez zela lekurik aproposena.

Ba oker zeuden!

Begira, datu batzuk emango dizkizuet:

Voy a daros unos datos:

De 15 municipios que tiene Rioja Alavesa, el PNV gobierna en 11.

Y eso es así porque la gente sabe que el PNV es un partido que se preocupa por sus pueblos.

Por su gente.

Que se compromete y que cumple su palabra.

El único partido que presenta candidatura en todos los municipios y que lo hace, además, con gente de cada pueblo.

Ése es el modelo PNV.

Estar, influir, decidir, comprometerse, hacer, cumplir la palabra dada.

Y todo ello para mejorar.

Para mejorar nuestros pueblos y nuestras calles.

Para mejorar infraestructuras y servicios.

Para mejorar, en definitiva, la calidad de vida de vascos y vascas.



También la vida de los jóvenes. Especialmente la vida de los jóvenes.

Eragin handia du gazteongan EAJren jardunak erakundeetan.
Adibidez, orain dela gutxi Gazteria Legea onartu da Legebiltzarrean (MI**)
Eta lege horrek ondo erakusten du EAJren konpromisoa
Hezkuntza. Enplegua. Etxebezitza.
Gazteriaren ikuspegia, zorionez, asko aldatu da azken urteotan.
Eta horren adibide da Gazteria Legea.
Orain, argi dago zeintzuk diren gazteon kezkak.
Lan duhina izatea, soldata duhin batekin.
Etxebizitza lortu ahal izatea.
Bizi proiektu bat hasteko baldintzak izatea.
Horiek dira gure kezkak. Eta horretan ari dira Alderdia eta Erakundeak.
2030 Gazte Emantzipazio Estrategia onartu du, emantzipazio adina 28 urtera jeisteko
helburuarekin.
Enplegua Sortzeko Gazte Enplegu Talka Plana onartu du, 27500 lanpostu sortzeko asmoarekin.
300€ko dirulaguntzak alokairuarentzako
200€ko dirulaguntzak seme alaba bakoitzeko.
Eta hori guztia entzutean, pentsatu dezakezue EAJ gazteekin konpromiso handia duen Alderdia
dela.
Gazteontzako alderdia garela.
Baina hori ez da horrela,
EAJ ez da gazteontzako alderdia.
EAJ gazteon Alderdia da.
Gaztez osatutako alderdia. Zu bezalako gazteok osatzen dugu EAJ.
Gazteak politika egiteko tresnarik onena garelako
Eta gazteon bizi baldintzak hobetzeko berme bakarra garelako.
Gaztea bazara, zure inguruan gertatzen denak kezkatzen bazaitu, zure herria maite baduzu, hau da
zure alderdia, hau da zure tokia. Izan EGIkide. Izan JELkide.
Zure zain gaude. Behar zaitugu. EUSKADIK BEHAR ZAITU.
Gora Euzko Gaztedi!
Gora Euzko Alderdi Jeltzalea!
Gora Euskadi Askatuta!